

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 293/2019 Erabakia, maiatzaren 3koa. Onestea nekazaritza ustiategietara iristeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzen 2019ko deialdia

Erabakia. Onestea nekazaritzako ustiategietara iristeko bideetarako eta landa bideetarako 2019ko laguntzen deialdia (zeina jasota baitago M04.3 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan), Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan.

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuak nekazaritzako ustiategietara iristeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzen oinarri arauak onetsi zituen, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan (M04 neurria: inbertsioak aktibo finkoetan).

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuak oinarri arau horiek aldatu zituen, haietan agertzen ziren lege erreferentziak eguneratzeko eta indarrean zegoen araudira egokitzeko, eta, gainera, laguntza horien 2018ko deialdia onetsi zuen.

lazko deialdian izandako esperientziaren ostean, beharrezkoa da oinarri arauak gehiago zehaztea, haiek errazago eta argiago aplikatzeko zenbait ñabardura egiteko.

Bestalde, 2018rako onetsitako eta 2019rako luzatutako Arabako Foru Aldundiaren gastu aurrekontuan 650.000,00 euroko kreditua dago (500.000,00 euro 2019rako eta 150.000,00 euro 2020rako), aurten ere laguntza lerro horretarako deia egiteko.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritzako ustiategietara iristeko bideetarako eta landa bideetarako 2019rako laguntzen deialdia (zeina jasota baitago M04.3 neurrian: inbertsioak aktibo finkoetan), Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 planaren esparruan, ondoren zehazten den eran:

Deialdia honako laguntza eta inbertsio motetarako egiten da:

1. Aurrez badiren bideak egokitzea, hau da, bideen egiturek eta haien elementu osagarriek jasandako kalteak konpontzea (oinarri arauen 3.2. artikulua).

– Diruz zein inbertsio edo esku hartze lagun daitekeen erabakitzeko kontuan hartuko diren taldeak eta diruz lagun daitekeen gehinezko gastua.

Inbertsio irizpidea edo diruz lagundu daitekeen puntuazioa erabakitzeko, deialdi honetan, dirulaguntza lerro bakoitzean talde hauek hartuko dira kontuan:

1. Bideak egokitzeko laguntza:

1. 1. taldea (ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako bideak konpontzea).

2. 3. taldea (aurretik zeuden bideak egokitzea).

– Eskaintzak aurkezteko lekua: Aldundiaren Erregistro Orokorra. Hori ez da oztopo izango urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutakoa aplikatzeko.

Dirulaguntza eskatzen duten erakundeek eskaera bakarra aurkeztu beharko dute. Eskaera horretan egin beharreko obra eta esku hartze guztiak agertu beharko dira, eta baita zein bidetan egingo diren ere. Entitate bakoitzak, gehienez, bi bide jarri ahalko ditu.

– Hogei egun natural izango dira eskaerak aurkezteko, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

– Kreditu erreserba: 650.000,00 euro, 40.01.01.46.01.762.90.01 “Nekazaritza azpiegiturak hobetzea” partidaren kontura, 2018 ekitaldirako onetsitako eta 2019rako luzatutako Arabako Foru Aldundiaren gastuen aurrekontutik, honela banatuta:

- 2019. urtea: 500.000,00 euro (xedapen erreferentzia: 19.5.19.105.1757/000).
- 2020. urtea: 150.000,00 euro (xedapen erreferentzia: 19.6.20.105.41/000).

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE